

9. FUNTSEZKO JARDUERAK:

Aplikazioa sortzeko, lehendabizi Sofical informatikariekin kontaktatu behar dugu gure proiektua aurrera eramateko. Oso garrantzitsua da ere Elizabeth Sulfer estilistarekin hitz egitea, bezeroen janzteko eran oinarritutako konjuntioak egiten lagunduko baitu.

Arazoak konpontzeko, aurretik azaldu dugun bezala, Waldo izeneko laguntzaile birtuala izango dugu, batez ere zalantzak argitzeko balioko duena. Arazoak konpontzeko, aplikazioan bertan daukagun telefonora deitzearekin edo posta elektronikora mezu bat bidaltzearekin nahikoa da.

Gure aplikazioan modarekin lotutako hainbat jarduera ditugu. Adibidez, bezero bakoitzak bere arropa guztia gure aplikazioko armairu digitalean izango du eta egunaren arabera, konjunto desberdinak sortuko ditu, horrela arropa aukeratzen galtzen duten denbora aurreztuko lukete. Baita, erabilera gutxi duten jantziak Vinted aplikazioan sal dezakete, armairuan leku gehiago izateko eta jantzi horri “2. bizitza bat” emateko.